

# Bizkaiko Diputazioak egiten dituen hainbat fumigazio salatu ditu EHNEk

Prozesionaria hiltzeko dirmilin fumigatzea «kaltegarria» da sindikatuaren arabera

**B**izkaiko mendietan prozesionaria akabatzeko Diputazioak egiten dituen dimilin fumigazioak sortutako kalteak -abere heriotzak eta gaixotzeak- salatu ditu EHNEk. Galera horiek direla medio erantzukizun erreklamazioak aurkeztu dizkio Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailari.

Gorane Agirre / Bilbo

EUSKO JAURLARITZAKO Nekazaritza Sailak prozesionaria izurriaren deklarazio ofiziala egin zuen 1990. urtean. Geroztik, Bizkaiko Foru Aldundiak *difloru-benzuron* 45 edo dimilin intsektizida kimikoarekin fumigatzen ditu probintzia horretako mendiak prozesionaria akabatzeko.

Aurten irailean eta urrian egin zituzten fumigazioen ondorioz izan diren bi gertakari eta haien ondorioak salatu zituzten atzo EHNE sindikatuko ordezkariak. Horrela, fumigazioetako baten ostean Galdakaoko askaldegi baten zegoen jendeak arazoak izan zituen begietan eta azalean.


Bestalde, irailaren erdialdian Enkarterrietan egin zuten beste fumigazio baten ondorioz, Sodupeko Bernardino Txabarri baserriarraren txekor bat hil da eta behi bik umea galdu dute. Era berean, aziendako beste abereek hematuriak, beherakoak... pairatu dituzte. Hori dela eta, EHNEk Administrazioaren ondare erantzukizunen erreklamazioa aurkeztu dio Bizkaiko Diputazioari.

Unzalu Salterain EHNEko lehendakariak adierazi zuenez, «intsektizida kimiko hori oso kutsagarria da; batez ere, ur gunetara botaz gero fauna guztia akabatzen da. Era berean, abereak, eta laboreetan ere kalte egiten du, izan ere, dimilinaz aparte berau disolbatzeko gasolio ere botatzen dute».

Gasteizko Gobernuak duela zazpi urte egin zuen prozesionaria izurriaren deklarazioa berehala berraztertze eskatu du EHNEk, batez ere, Bizkaiko probintzian espezie hori azken urteetan nabarmen murriztu delako.

Era berean, dimilinen ordezkariak «seriotasunez» aztertzea galdetu zuten EHNEko kideek. Azterketa horrek bi oinarri aintzat izan beharko lituzkeela nabarmendu zuten: batetik, prozesionariaren egungo presentzia maila erreala, eta bestetik, ordezkariak sortutako produktuak erabiltzen bestelako ondorioak. Ildo horretan, Urdaibaiko Biosferaren Erreserban prozesionaria akabatzeko gaur egun erabiltzen duten bakteriaz baliatzeko eskatzen dute.

Ordezko tratamendurik mar txan jartzen ez den bitartean, prozesionariaren kontrako airezko tratamenduaren ingurugiro



Dimilin fumigazioak abereei egindako kalteak salatu ditu EHNE sindikatukoak. XOUSE SIMAL

eraginaren deklarazioak jasotzen dituen baldintzak «zorrotz» betetzeko exijitzen dute. Halaber, baldintza horietako batzuk egun betetzen ez direla adierazi zuten: esterako, ur gainekeo tratamendu zuzena saihestea edo pinuaz bestelako landareetan ez bota-

tzea. Horretaz gain, egiten den fumigazio guztiak aldeztu aurretik iragartzeko eskatu zuten.

Aipaturiko baldintza horiek bete ez eta horren ondorioz kalteak sortzen diren bakoitzean Diputazioarek erreklamazio erantzukizunak aurkeztuko diz-

kiotela iragarri zuten sindikatukoak.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Sailari auzi honetan esku har dezala eskatuko dio EHNEk, «arazoa Sail horren eskumenetan sartzen delako erabat». X

## Giza eskubideei buruzko hitzaldi sortari ekingo dio Deusto Forumak

■ Deklarazio Unibertsalari buruzko iruzkin laburra argitaratu du

Gorane Agirre / Bilbo

GIZA Eskubideen Deklarazio Unibertsalak 1998an 50 urte beteko duela eta, *Giza eskubideak mundu zatitu honetan* izeneko hitzaldi sorta antolatu dute Deusto Forumak, Deustuko Unibertsitateko Giza Eskubideen Institutuak eta Bizkaiko Abokatu Bazkuneak.

Hilaren 9an hasi eta datorren urteko abendura arte egingo den hitzaldi sortaren bidez, antolatuzaileen arabera, giza eskubideen egoeraz hausnartu nahi dute XXI. mendearen atarian. Era berean, giza eskubideen doktrinatik erantzun bat eskatzen duten gai ezberdinak ere jorratu dituzte.

Urtebete luze iraungo duen ziklo horretan, besteak beste, honako pertsona hauek izango dira hizlari: Mohammed Bedjaoui, Hagako Nazioarteko Auzitegiko lehendakari ohia; Jon Sobrino, Erdialdeko Amerikako

Unibertsitateko teologia irakaslea; Butros Gahli, Nazio Batuen Erakundeko seigarren idazkaria; Pierre Sane, Amnesty International-eko idazkari nagusia; Sada-

ko Ogata, Errefuxiatuentzako Nazio Batuetako Goi Komisionaria; eta Javier Aldasoro, EAEko Giza Eskubideen aldeko Elkarte-ko burua.

Hitzaldiotan hainbat gai jorratu dituzte adituek; esate baterako, giza eskubideen eta nazioarteko zuzenbide garaikidearen arteko harremana, giza laguntza, kultur aniztasuna, giza eskubideak Euskal Herrian, gerra krimenei buruzko Nazioarteko Justizia Epaitegiak, egia-erkereta batzordeak, errefuxiatuak, herrialde gutxituak, Deklarazioa aplikatzeko arazoak eta 50 urte horietan izan diren aldaketak...

Carlos Suarez Bizkaiko Abokatuaren Bazkuneko lehendakariak adierazi zuenez, «giza eskubideek gaur egun dituzten bi

etsai nagusiak dira boterearen gehiegikeriak eta ustezko eragin-kortasunaren izenean egiten direnak».

Bestalde, Giza Eskubideen Institutuak *Giza eskubideen deklarazio unibertsala. Iruzkin labur bat bere 50. urteurrenean* izenburuko liburuxka plazaratu du. Lanak Deklarazioaren testua (euskaraz eta gaztelaniaz) eta beronen iruzkin bat jasotzen ditu, baita gaiari buruzko oinarriko bibliografia ere.

Liburuaren egileak Jaime Oraa eta Felipe Gomez dira. Lehenengoak azaldu zuenez, «Deklarazioaren testuari eman diogu lehentasuna hobe ezagutu dadin eta beroni buruzko iruzkina eginez, berau hedatu nahi dugu. Horrela, deklarazioaren jorraztearen historia, Giza Eskubideen Batzordearen barruan izan zen Eki-Mendebalde aurrez aurrekoa, edukia eta deklarazioaren balio juridikoa ezagutu daitezke». X

Urkila taldeak berretsi du ikastola berri bat behar dela Uztaritzen

■ Auroy auzapezaren adierazpenak salatu ditu gurasoen elkarteak

L.Fourcade / Baiona

URKILA elkarteak sortu zen ikastola berri baten eraikitze-ko Uztaritzen, ikastolako gurasoek eta laguntzailek bultzaturik. Informazio kanpaina abiatu zuen ikastolaren egoera larria zabaltzeko eta mobilizazioak antolatu zituen joan den udazkenean. Gutun irekia bidali berri dio Bernard Auroy herriko auzapezari, hark prentsan egindako adierazpenak salatzeke. Izan ere, «herri txikiaren» proiektua aurkeztuz, auzapezak azpimarratu zuen indarrak egiten zituela baldintza hobeak eskaintzeko ikastolako haurrei eta Herriko Kontseiluak batzorde bat osatu zuela dozerik ikertzeko. «Arazo guztiak landu eta lehentasunak finkatu ondoren, batzordeak erabaki du jostalekua antolatzea eta 250.000 liberako aurrekontua finkatu dugu obrak egiteko. Bigarren urratsa izanen da prefabrikatuak bertan behera uztea eraikin zaharra zabaltzeko. Proiektua 1998an gauzatuko da. Alabaina, azpimarratu behar da ehun bat ikasle biltzen dituela ikastolak eta ikasleen erdiak herri-kanpo datozela», azpimarratu zuen auzapezak. Bere iritziz, ikasleentzako etorbidea kontutan hartu beharko da gero-ko proiektuetan, «batez ere ikusiz ikastola berrien xedeak lantzen direla ondoko herrietan».

Urkila elkarteak salatu ditu Bernard Auroyren adierazpenak eta elkarrizketa bat galdegina dio bere eskakizunak aurkezteko. Izan ere, elkartearen ustez auzapezak ez du ongi ulertu ikastolaren egoera. «Nola onartu gure haurrak bigurutzeko oso lanjeros baten ondoan den eskola horretan ibil daitezten, inolako argi egokirik gabe, pentze eremurik batere ez delarik?», galdetu zuen elkarteak. Bere iritziz, jostalekuaren antolaketak ez du fitsik konponduko, eta are gehiago, herriko batzordeak ez du oraindik ez proiekturik, ez egutegirik aurkeztu. «Auroy jaunak kontrakoa erranik ere, nori diogu sinetsi behar?».

Azaroaren 22an, Uztaritzeko ikastolako gurasoen biltzar nagusiak aho batez bozkatu zuen ikastola berri baten alde. Uztaritzeko Udaleren laguntza eskatuko du baina auzapezaren adierazpenak ikusi ondoren funtsezko galdera bat egin zuen Urkila elkarteak. «Gure herriak proiektu ederra darama 'Herri txikia' sortzeko asmoz. Noiz erakutsiko ote du euskararen garapeneren alde lan egiteko egiazko nahikunderik?». X